

2025eko urriaren 20ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Virginie Sabaloue, Sabine Auge, Anne Marie Darguy, Karine Perez, Samuel Biscay, Patrick Barneche, Ramuntxo Oteiza, Frédéric Hernandez, Hervé Parachou eta Arño Gastambide

Excusés/barkatuak: Chantal Echevertz, Maité Oxarango, Kattalin Duhalde, Koxe Barbier, Philippe Mongabure

1. KELEBen txostenen onartzea

1. TXOSTENA: Lan Eremuei (LE) dagozkien kargen eskualdatzeen ebaluazioak.

2024ko irailaren 28ko deliberoaren bidez, Elkargoko Kontseiluak onartu zuen herriko 35 LEen zerrenda eta eremua, karia horretara Euskal Hirigune Elkargoari eskualdatuak zirenak 2025eko urtarrilaren 1az geroztik. Eremu horiek 20 herriri dagozkie.

2025eko ekainaren 11ko EGETB bilkuran xeheki ikerturik karga-eskualdatzeei dagokion ebaluazioa, lehenik ondare-inbentario biziki zehatzean oinarritua da, eskualdatu beharreko LEetako ekipamendu guzien kontaketa teknikoaren bidez sortua, Euskal Hirigune Elkargoaren eta dagokien herrien arteko balioztatze kontraerankorrekarekin.

Kargak herrietatik Euskal Hirigune Elkargora eskualdatzen direnez, finkatu zenbatekoek dagokien herriei eman ordainsarien apaltzea ekarriko dute (**ikus behereko taula**).

2. TXOSTENA: Interes Orokorreko errepideei dagozkien kargen eskualdatzeen ebaluazioak

2017ko abenduaren 16ko deliberoaren bidez, Euskal Hirigune Elkargoak erabaki zuen "Interes orokorreko errepideen sortzea edo antolatzea eta mantentzea; interes orokorreko aparkalekuen sortzea edo antolatzea eta mantentzea" hautuzko eskumena betetzea.

2025eko urtarrilaren 1az geroztik Interes Orokorreko Bideetan (IOB) 18,5 km baizik ez dira atxiki jatorrizko 69,2 km-etatik. Ondorioz, 50,7 km errepide behar dira dagokien herriei itzuli (Angelu, Baiona, Biarritz).

Kargak herrietatik Euskal Hirigune Elkargora eskualdatzen direnez, finkatu zenbatekoek dagokien herriei eman ordainsarien emendatzea ekarriko dute (**ikus behereko taula**). **Esplikazioaren ondotik, Herriko Kontseiluak bi puntuak onartu ditu.**

2. Elizako teilatuaren berritzea – Finantzamendu plana

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio elizako teilatu osoa berritzeko proiektua. Gehitu du KAEZi igortzeko dirulaguntza-dosierra apailatu dela, obren zenbatekoa 58 517.80€-tan (BEZa gabe) estimatua dela, eta ikerketen eta obralaritzaren zenbatekoa 6 500.00€-tan (BEZa gabe) estimatua dela. KAEZ erakundeaz gain, Estatuari, Departamenduari eta beste partaide instituzional orori dei egin behar da operazio mota horretarako dirulaguntzak galdegiteko. Kontseiluak onartu du

Aurreikusi finantzamendu plana

Gastu motak	Zenbatekoa (BEZa gabe)	Irabaziak	Zenbatekoa
Obrak	58 518,00 €	KAEZ	12 800,00 €
Obralaritza	6 500,00 €	<i>Dirulaguntza guziak</i>	12 800,00 €
		Diru propioa	52 218,00 €
OROTARA	65 018,00 €	OROTARA	65 018,00 €

3. Herri zentroaren zeharkatzearen berritzea eta bertan natura berriz sartzea

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio Aiherraren zeharkatzea berritzeko eta bertan natura berriz ezartzeko proiektua, segurtasun lana eta paisaia antolaketa, autobus-geldilekua arauen arabera ezartzea, galtzadaren eta dagoen aparkalekuaren berritzea. Gehitu du dirulaguntza-dosierra apailatuko dela, obren zenbatekoa 461 500,00€-tan (BEZa gabe) estimatua dela, eta ikerketen eta obralaritzaren zenbatekoa 24 720,00€-tan (BEZa gabe) estimatua dela. Orain Estatuari, Departamenduari eta beste partaide instituzional orori dei egin behar zaie operazio mota horretarako dirulaguntzak galdegiteko; Euskal Elkargoak 30 000 € eman ditu.

Aurreikusi finantzamendu plana

Gastu motak	Zenbatekoa (BEZa gabe)	Irabaziak	Zenbatekoa
Obrak	461 400,00 €	Departamendua	170 000,00 €
		EUSKAL ELKARGOIA	30 000,00 €
Obralaritza	24 720,00 €	<i>Dirulaguntza guziak</i>	200 000,00 €
		Diru propioa	286 120,00 €
OROTARA	486 120,00 €	OROTARA	486 120,00 €

Kasu, departamenduaren parte hartzea alde batekoa izanen da haren zerbitzuek proiektua behin betiko onartu ondoan (mementokoz estimazioa da); Kontseiluak onartu du.

4. 2025eko diru-laguntzak elkarteei.

Dirulaguntza emateko proposamena	2025	2024	2023
Abarratia	900,00	800,00	800,00
Irulegiko Irratia	260,00	230,00	230,00
ACCA Lehena	310,00	280,00	280,00
Eskola Pribatuko Burasoen Elkarte	600,00	540,00	540,00
AIHERRAKO CATM – PG	120,00	120,00	120,00
Herria kazeta	350,00	300,00	300,00
Sos Laborari	275,00	250,00	250,00
Bidekoekin	250,00	230,00	230,00

Lurzaindia	400,00	350,00	350,00
Handisport Pays Basque	310,00	280,00	280,00
Izpindar	175,00	150,00	150,00
CIDFF	175,00	150,00	150,00
	4 125,00	3 680,00	3 680,00

5. Aiherrako eskola pribatuko IKKEri eta SEASKAri dirulaguntza

Kontratupean diren eskolei funtzionamendurako prezio finkoa	2025	2024	2023
Eskola pribatuko IKKE (790 € Aiherrako haur bakoitz)	16 590,00	17 050,00	15 200,00
Ordaintzea Kantinako eta zaindegiko langilearen ordaintzea	2 971,00	2 700,00	3 250,00
Seaska (790 € Aiherrako haur bakoitz)	22 910,00	25 575,00	24 320,00
	42 471,00	45 325,00	42 770,00

Esleipenen kalkulua eskola horietan ibiltzen den haur kopuruaren arabera da bider herriarteko eskola publikoan eskolatu haur baten kostu prezioa (2021ean 675 €-koa zen eta 2025ean 790 €-koa).

21 ikasle bada Aiherrako eskola pribatuan, 29 haur inguruko ikastola guzietan eta informazio gisa, 39 haur bada BIGABAT HeBHeSeko klaseetan.

Auzapezak proposatu du ez ohiko bi dirulaguntzaren bozkatzea: 39 € Hazparnealdeko RASEDentzat eta 50 € Aiherrako Garraio solidarioak elkartearentzat (lurralde eremuko beste herriekin partekatuz).

Biltzarraren urtesaria, 2024an erabaki zen hari kideak; zenbateko bera: 56.50€

Herriko Kontseiluak puntu horiek guziaz onartu ditu.

6. Errepideen programarako proposamena

Kurutzaldeko bidea	23 051,40 €
Abarratiako bidea	5 722,08 €
1 eta 2ur biltegiak diren lursaila	2 435,78 €
Arduarreko bidea, 2 zati	21 145,26 €
Londaitzeko bidegurutzeta	2 486,40 €
	54 841,14 €

Errepide horiek eginen dira lehentasunez, puntua eginen dugu errepideak garbitzeko edo gune osagarrietarako, aurrekontuaren arabera.

Gai orotarik: Audrey Ipuyren ordezkatzeta; Lauak enpresatik ateratzeko antolamendua; Salmenta lotizamenduan; Zubiaren berritzeko finantzamendu planaren baieztatzea; Herriko bozen egutegia; biztanle kontaketa bermatzeko langilea

Bilkura 21:30ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide